

Simaur ezberdinen ezaugarriak

Konpostaz hitz egiten dugunean jatorri ezberdineko materia organikoz hitz egiten dugu bai animalia jatorri, landare jatorria edo jatorri mineralekoak. Edozein kasutan eredu ekologikoan jarduteko ongi ezagutu behar ditugu material organikoen nondik norakoak eta horregatik ez dute balio konpostatzeko abeltzaintza intentsibo, nekazaritza ez ekologikoko, kimika erabiltzen duen lorezaintza edo araztegietatik eratorriko frakzio organikoak. Argiagoa izan dadin hona hemen taulatxo bat:

ONGARRI ORGANIKO MOTAK	DESKRIBAPENA, ERABILERA BALDINTZAK
Simaurra	<ul style="list-style-type: none"> Gorotz eta gai begetalen (azpigarri edo ohe) nahasketa, Ezin da abeltzaintza intentsibotik datorrena erabili.
Simaur sikua, oilo-gorotz deshidratatua	<ul style="list-style-type: none"> Ezin da abeltzaintza intentsibotik datorrena erabili.
Lurrustela, konpostaturiko simaur edo oilo-gorotza	<ul style="list-style-type: none"> Ezin da abeltzaintza intentsibotik datorrena erabili.
Mindak (purinak)	<ul style="list-style-type: none"> Fermentazio egokia egin ondoren, edota diluituta erabili. Ezin da abeltzaintza intentsibotik datorrena erabili.
Etxeko hondakin konpostatu edo fermentatuak	<ul style="list-style-type: none"> Aerobikoki konpostaturikoa edo anaerobioki fermentaturikoa. Landare edo animalia hondakinak soilik. Jasotzeko sistemak itxia eta kontrolatua izan behar du

Honela konpostaturiko simaurrak konpost mota paregabea izan ohi dira gure baratzeetarako horregatik jarraian hainbat simaurren deskribapen txiki bat azaltzen dizuegu konpostatzeko dituzten ezaugarriekin:

TXERRIENA/ HARAGITARAKO BEHIENA: Karbono gutxikoa eta proteina askoko simaurra da (C/N erlazioa 16:1) ia beti zuntza gehitu behar izaten zaio nahiz eta azpigarria izan. Trinkotzeko joera duenez oso motel konpostatzen da, 4-6 hilabete inguru behar ditu eta iraulketa dezente eskatzen du. Simaur hotza dela esaten da, konpostatzen hastea kosta egiten zaiolako.

ZALDIENA: Egitura oso ona du, ez zaio zuntzik gehitu behar izaten, hausnartzailea ez denez, berez ere gorotzak zuntz asko izaten duelako (C/N erlazioa: 20:25/1). 3-4 hilabete nahiko ditu konpostatzeko. Konpost hau magnesiotan besteak baino aberatsagoa izaten da. Simaur beroa dela esaten da.

ESNETARAKO BEHIENA: Egitura nahiko ona du, baina zuntz lehorra gehitzeak mesede egiten dio bustia izaten delako (C/N erlazioa:30-40/1). 4-5 hilabete behar ditu konpostatzeko.Txirbila erabiltzeak simaurren ezaugarriak alda ditzake. Normalean txirbila duten simaurrak oso gaizki deskonpostatzen dira, baina esne behien kasuan ez da horrenbesteko arazoa izaten behiak sabelean dituzten entzimek prozesuan laguntzen dutelako.

HEGAZTIENA: Nitrogeno asko duen simaurra da (C/N erlazioa :10-15/1) eta ondorioz zuntza gehitu behar izaten zaio (bolumenaren laurdena gutxienez) eta sarriago irauli behar izaten da amoniako gal dezan. 4-6 hilabete behar ditu konpostatzeko. Beste konpostekin konparatuz, nitrogeno gehien duena da.

Características de los diferentes estiércoles

Cuando hablamos de compost nos referimos a materia orgánica que pasado por un proceso de compostaje y los materiales pueden ser de origen animal, vegetal o mineral. En cualquier caso, cuando estamos practicando una agricultura ecológica es clave conocer las características del material y tener en cuenta **que no podremos utilizar material orgánico** procedente de ganadería intensiva, de agricultura no ecológica, jardinería que emplea productos químicos o lodos de depuradora. Para que resulte más esclarecedor e aquí una tabla que lo recoge todo:

TIPOS DE MATERIA ORGÁNICA	DESCRIPCIÓN, CONDICIONES DE USO
Estiercol	<ul style="list-style-type: none"> • Mezcla de estiércol con restos vegetales. • No se puede utilizar el procedente de ganadería intensiva.
Estiercol seco, gallinácea deshidratado	<ul style="list-style-type: none"> • No se puede utilizar el procedente de ganadería intensiva.
Turba, estiércol compostado o gallinaza	<ul style="list-style-type: none"> • No se puede utilizar el procedente de ganadería intensiva.
Purines	<ul style="list-style-type: none"> • Tras una buena fermentación o diluido. • No se puede utilizar el procedente de ganadería intensiva.
Residuos caseros compostados o fermentados	<ul style="list-style-type: none"> • Compostados aerobiamente o fermentados anaerobiamente. Solos restos de vegetales o animales. • Deben ser de sistemas de recogida cerrada y controlada.

El estiércol compostado correctamente es fabuloso para nuestras huertas es por ello que os facilitamos las características y los condiciones de uso de las más conocidas:

PORCINO / VACUNO PARA ENGORDE: Es un estiércol de poco carbono y muchas proteínas (Relación C/N 16:1) casi siempre se le debe de añadir material estructurante de fibra como puede ser la cama del establo. Suele tener tendencia a compactarse por lo que suele tener un compostaje lento para lo cual requiere de 4-6 meses y abundante volteo. Se dice que es un compost frío porque al compostaje le cuesta arrancar.

EQUINO: Tiene una estructura muy buena, no se le añade estructurante ya que al ser animales ruminantes el estiércol suele tener mucha fibra (Relación C/N: 20:25/1). Le basta 3-4 meses para compostar. Suele ser un compost más rico en Magnesio que el resto. Se dice que es un compost caliente.

VACUNO DE LECHE: Suele tener una buena estructura pero al ser un estiércol húmedo le suele venir bien aportarle fibra. (C/N erlazioa:30-40/1). Requiere de 4-5 meses para compostar.

Se dice que aportar serrín al compost puede cambiar sus características. Normalmente el estiércol que posee serrín composta muy mal pero en el caso del vacuno de leche un suele tener mayores problemas por que las enzimas que tienen en el estomago ayudan en el proceso de descomposición.

AVES: Es un estiércol con gran cantidad de nitrógeno (Relación C/N: 10-15/1) y por tanto se le debe de añadir mucha fibra (un cuarto del volumen por lo menos) y voltearlo frecuentemente para liberar el amoniaco. Necesita 4-6 meses para compostar y comparando con el resto de estiércoles es el que más nitrógeno tiene.